



Olabe Bengoetxea (a) etxebizitza

Aldacrak: Olabenbengoa / Bengoetxea
Ahozkoa: Bengétxe / Benkétxe / Bengoétxe

“... la casería de Olave-vengoa y sus pertenecidos radicantes en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz... en la cofradía de Ocan-go... es de dos viviendas ocupa con inclusión de la arnaga, horno zaguan y un retazo de huerta y monte contiguos quinientos veinte y cinco estados equivalentes a diez y nueve areas y noventa y siete centiareas...”
DJE 4/2 or. (1878)



43° 10' 24"

2° 34' 3"

Gerediaga Elkarte / T. Angoitia

Olabe baserri honen gaineko lehendabiziko aipu dokumentalak 1669koak dira, *Olabe Vengoa* (BAHP, A1261/32. or.), eta Okango kofradiaren baitan agertzen den baserri bati erreferentzia egiteko erabiltzen da izen hau. Dokumentazioan izen desberdinak erabili izan dira, esaterako: *Vengochea* (1745, Bizkaiko su-errolak), *Olabe Bengoechea* (1866, DJE, 2/ 41. or.) eta *Bengoche* (1967, BUA, CE.). Auzotarren artean, *Bengétxe*, *Benkétxe* edo *Bengoétxe* moduan ezagutzen da.

Baserri-etxe handia da. Hiru solairu eta ganbara dauka, XIX. mendeko baserri askok legez. Fatxada nagusiaren antolamendua simetrian oinarritzen da, nahiz eta baoren baten arrastoak desestali dituzten eta eskuma aldean atea dagoen, ordena hori hautsiz. Hala ere, ardatza nabarmentzeko intentzioa garbia da. Bertan, atarteko arku zoragarriaren gainean balkoia dauka, txikia eta harrizko zoruduna. Horrekin lerrokatuta, bigarren solairuan beste balkoi bat dauka, luzeagoa, egurrezko habeen gainean eraikia.

Gorago, haren ateburua aprobetxatuz, beste leiho txiki bat dago, ganbaran. Ardatz horren bi aldeetara, leiho bina dauka, beheko eta lehenengo solairuetan, eta bakarra, aldiz, bigarrenean. Gaur egun, beheko solairuan harlangaitza desestali egin diote; baina jatorrian goialdean daukan itxura izango zuen, hots, horma luzituak eta pintatuak eta harlandua kantalen eta bao guztien inguruan.

Aipatzekoa da lehenengo solairuko balkoiaren ondoan dauden bi leihoen hegiak molduratuak direla, eta, apalagoak badira ere, baita leiho itsuen antza ere, beheko solairuan gordetzen dituelarik sukaldeko harriaren urak kanporatzeko xurrutariak. Oso inskripzio interesgarria dauka atarte barruko bi ateburuetan: “*ESTA OBRA Y PAREDES DE LAS HEREDADES POR NOS SANTIAGO MA DE ARGUINZONIZ Y MA DE BE. / SOITA HORMAECHEA DESDE EL AÑO DE 1841 AL 48 Y HEREDEROS VOSOTROS, COMPADECER DE NOSOTROS*”.

toponimia

Sarritan esan dugun legez Bizkaian oso arrunta da etxe izenetan lehenengo osagaia auzoaren izena izatea, hemen bezala (*Olabe*), eta bigarrena etxearena berarena, *Bengoetxea* kasu honetan.